

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3495

AGINDUA, 2015eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez bigarren aldiz aldatzen baita merkataritza dinamizatzeko bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituen agindua.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Agindua-
ren bidez (2010eko urriaren 25eko EHAA, 205. zk.), merkataritza dinamizatzeko bulegoetarako
laguntzak ezarri eta arautu ziren.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 26ko Aginduak
(2014ko uztailaren 11ko EHAA, 131. zk.) aurrekoa aldatu zuen, berau aplikatzearen eraginkor-
tasuna hobetzeko zenbait alderdi eguneratu eta zehaztu zituen, eta, gainera, zenbait irizpideri
laguntza horietara aurkeztu diren proiektuak ebaluatzean emaniko haztapena zehaztu zuen.

Laguntza hauen ordainketa-egitura aztertuta, ohartu gara desoreka handia dagoela deialdiaren
urtean erakunde onuradunek egindako lanaren eta Administrazioak egindako aurrerapen ekono-
mikoaren artean. Bada, egoera hori partez zuzentzen da diru-laguntzen deialdira aurkeztu den
proiektuaren zati bat, nahitaez deialdiaren urtean egin behar dena aldatuz, eta, hiru hilabete eza-
rriz, gutxienez.

Halaber, laguntzen eskabideak aurkezteko modua arindu behar da bide telematikoez baliatuz
eta eskabidea betetzea erraztuz, horretarako prestatutako eremuan beharrezko agiriak eta egiteko
modua ezarri.

Azkenik, bulegoen izena egokitu nahi da eurek egin behar duten lanera, zeina dinamizatzea
baino gehiago baita; beraz, Merkataritzako Bulego Teknikoak izena hartzen du, bere errealitatea
hobeto islatzen baitu horrela.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Agindu honen 4.3 artikulua aldatzen da: Agindua, 2010eko urriaren
20koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, merkataritza dinamiza-
tzeko bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituena. Eta aurrerantzean honako idazketa
hau izango du:

«3.– Proiektuak 12 hilabete hartu beharko ditu, eta, deialdiaren urtean izango dira horietatik
gutxienez 3.»

Bigarren artikulua.– Agindu honen 9. artikulua aldatzen da: Agindua, 2010eko urriaren 20koa,
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, merkataritza dinamizatzeko
bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituena. Eta aurrerantzean honako idazketa hau
izango du:

«1.– Diru-laguntza hauek eskuratzeko aurkeztutako eskabideak elektronikoki gauzatuko dira,
Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuarekin eta E-Administrazioarako Plataforma
Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzen duen Informatika eta Telekomunika-
zioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenarekin bat.

Eskabideabideelektronikoz baizik ez da eskuratuko, ez beteko, <http://www.industria.ejgv.euskadi.net> egoitza elektronikoaren bidez, Merkataritzaren gaineko eskumena duen sailburuordetzak ebazpen bidez egiten duen deialdia argitaratu eta gero. Eskabide-eredua esandako egoitza elektroniko horretan egongo da eskuragarri.

Eskabidea egin eta gero, espedientera sartzea, eskakizunak, jakinarazpenak eta gainerako izaipideak helbide honen bidez egingo dira: <http://www.euskadi.net/misgestiones>

Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailearen izenean jarduteko legezko gaitasuna duen pertsonaren sinadura elektroniko ez ezik, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta, Administrazioak Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuak xedatu bezala, eska litzakeen guztiak ere aurkeztuko dira.

2.– Hau da eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Jardun-eremua.

b) Ekintza-proiektua eta diru-laguntza eskuratzeko aurkeztutako lan-plana, 11.2.a) Kalitatea eta aginduaren helburu eta eskakizunekiko lotura artikuluko alderdiei jarraituz, banan-banan eta aipatu ordenan egituratua.

Horrela, burutzen diren ekintzek jarraian zehazten den formatua izango dute nahitaez:

1.– Ekintzaren deskribapena.

2.– Erakunde eskatzailearen esku-hartzea.

3.– Bere aukera neurtzeko adierazleak.

4.– Burutzapen-egutegia.

5.– Bideratutako aurrekontua.

6.– Kontratatu beharreko teknikariaren esku-hartzea.

Halaber, kronograma bat aurkeztu beharko da, hilekako, aurreikusitako ekintza guztiak eta bulegoko teknikariak horiek burutzen emandako lan-orduak biltzen dituen diru-laguntzaren aldiarena.

c) Hala badagokio, hauekin izenpetutako hitzarmena: gainerako merkatarien elkarrekin edo banaketa-sektorearekin harremana duten erakundeekin, Bulego Teknikoaren guneko edo jarduera-eremuko enpresa eta erakundeekin. Halaber, aurreko atalean adierazitako ereduaren arabera aurkeztuko dute proiektua.

d) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak; hartarako, beharrezkoa bada, eraketa-eskirituraren kopia, estatutuena eta erregistroko inskripzioarena ekarriko ditu.

e) Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzetara biltzeko, kasuan kasu eskumena duen organoak hartutako erabakiaren ziurtagiria.

f) Beharrezkoa izanez gero, erakunde eskatzailearen legezko ordezkarien NANaren kopia eta ordezkari horien ahalordetze-agiria.

g) Elkarte, federazio edo taldeentzat, deialdiaren ekitaldiko sarreraren eta gastuen aurrekontuak, behar bezala xehakatuak, eta deialdiaren aurreko ekitaldiko sarreraren eta gastuen kontuak. Udalen eta garapen agentzien kasuan, merkataritzaren eremuari buruzkoak izango dira agiri horiek.

h) Memoria bat, non adierazten baita Bulego Teknikoaren egoitza eta proiektua garatzeko esku-
ragarri dauden bitarteko material, tekniko eta pertsonalak.

i) Bulegoaren arduradunaren curriculum vitae-a (argazkia barne).

j) Aplikatu beharrekoa den hitzarmen kolektiboaren jakinarazpena.

k) Hala dagokionetan, kasuan kasuko batzorde, korporazio edo aginte-organoko kideen kopurua
zehaztuko duen zinpeko aitorpena, sexuaren arabera bereizita eta izendapenak jasotzen dituen
agiriaren kopia erantsita duela.

l) Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetako programen kontura edo beste edozein admi-
nistrazio edo erakunde publiko zein pribatutako programen kontura helburu bererako jasotako
diru-laguntzen gaineko zinpeko aitorpena. Aitorpen horretan, gainera, aurreko urtean egindako
jardueretarako eskuratu ziren diru-laguntzen zehaztasunak ere jasoko dira.

m) Identifikazio Fiskaleko txartelaren kopia eta, onuradun berria izanez gero edo lehenago aur-
keztutako datuak aldatuz gero soilik, Hirugarrenen Altaren agiria.

n) Kasuan kasu, dagokion Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren ziurta-
giri eguneratua, erakunde eskatzailearen Merkatarien Elkarteen Erroldako inskripzioari buruzkoa,
Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araberrako elkartekideen kopurua adierazita.

ñ) Paragrafo honetako d), f) eta m) letretan aipatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte enpre-
sek, baldin eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari ez badiote inolako laguntzarik
eskatu azken bi ekitaldietan, edo eskatu arren, orduan aurkeztutako agiri horiek aldatu badira.
Betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen aza-
roaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa bete beharko da.

Nolanahi ere, beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango dio Merkataritza Zuzendari-
tzak erakunde eskatzaileari, beharrezkotzat jotzen badu hark aurkeztutako eskabidea behar bezala
ulertu, ebaluatu eta tramitatu ahal izateko. Arau honetan berariaz aurreikusi ez diren gaietan, Herri
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko
30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Diru-laguntza emateko eta –hala badagokio– ordaintzeko, diru-laguntzen programa hau kudea-
tzen duen organoak egiaztatu egingo ditu hala zerga-betebeharren ziurtagiriak nola Gizarte
Segurantzarekiko betebeharrenak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bai Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Agin-
duan, zeinen bidez ezartzen eta arautzen baitira merkataritza dinamizatzeko bulegoentzako
laguntzak, eta bai Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren
26ko Aginduan, zeinak aurrekoa aldatzen baitu, merkataritza dinamizatzeko bulegoei egindako
erreferentziak Merkataritzako Bulego Teknikoei egindakotzat hartuko dira.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.

Merkataritza dinamizatzeko bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituen aginduaren
4.3 artikuluan eskatutakora egokitzeko, 2015eko irailaren 30ean amaituko da 2015eko deialdian
oraindik onuradun diren erakundeek 2014ko deialdian jasotako diru-laguntza justifikatzeko epea.
Diruz lagundutako aldia epe hori igarota amaitzen den kasuetan, likidazioa era proportzionalean
egingo da, hau da, hasten denetik zehaztutako denbora-mugara arteko aldi horren zatiaren arabera.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

2014ko deialdian aurkeztutako kontratua amaitzen den unera rte atzeratzen da 2014ko eta 2015eko ekitaldietako erakunde onuradunek Merkataritzako Bulego Teknikoak kontratatutako pertsonaren kontratua aurkezteko unea. Gutxienez, 2016ko irailaren 30era arteko indarraldia izango du kontratu berriak edo lehengoaren luzapenak, eta diruz lagundutako aldi osoan eskainiko da zerbitzua.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 28a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.